



IZENBURUA:

Erabilera planak: mugak hausten

EGILEA:

Imanol Haro

DATA:

2014/05/16



UDALTOP
SOZIOLINGUISTIKA
JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

Sarrera	3
1. Mugak hizkuntza politikan.....	3
2. Erabilera planekin zer egin dugun.....	5
3. Etorkizunerako erronkak	8
Eranskina.....	9



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

Sarrera

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea 1991n eratu zen, eta hasiera-hasieratik jardun du udaletako euskararen erabilera handitzeko lanean. Lan horretan hasi bezain laster konturatu ginen planifikatzeko beharraz, eta planifikazioa euskarri fisiko batean adierazi beharraz. Zer-nola planifikatu, nola eraman planifikazioa euskarri batera, nola egituratu, ze metodologia erabili zer planifikatu behar den erabakitzeke... Puntu horiek izango ditugu aztergai gaurko mintzaldian, UEMAren 23 urteko eskarmentutik abiatuta.

Mintzaldia hiru zatitan banatuko dugu:

- 1.- Hizkuntza politikak gaur eta hemen dituen mugak eta horrek UEMAren jarduna nola oztopatzen duen
- 2.- Erabilera planekin zer egin dugun (zertzelada handitan)
- 3.- Etorkezuean askatu beharreko korapiloak, udalen barne erabilera planak krisitik ateratzeko.

1. Mugak hizkuntza politikan

Erabilera planak UEMAk nola lantzen dituen ulertzeko, ezinbestekoa da ze testuingurutan lan egiten dugun aztertzea. Eta testuinguruan, askotan, bideak baino gehiago mugak daude, eta hausnarketa horren ondorioz hautatu genuen gaurko mintzaldiaren izenburua. Hausnarketa sakonak baino, hausnarketarako bidea emango duten flashen edo zertzeladen bidez egoera orokorra zein den argitzen saiatuko gara. Aurkeztuko ditugun puntuek ez dute zertan garrantziaren araberrako hurrenkera izan.

A. Hizkuntza politikaren definizioaren mugak

Hizkuntza politikaren definizio murriztu bat da nagusi. Hizkuntza politikaren arduraduna, eragilea eta erantzulea euskara zerbitzua da, eta bere jarduna euskararen sustapenarekin dago lotuta. Hartara, euskara zerbitzutik at hizkuntza politikak pisu txikia du, eta euskararen egoeran eta euskaldunen inguru soziolinguistikoan eragina duten erabaki potoloenak euskara zerbitzutik at hartzen dira. Lurralde antolamenduarekin lotutako erabakiak, adibidez, euskara zerbitzutik at hartzen dira, eta hizkuntza kontuak oso pisu arina dute bertan.

Lurraldea nola antolatzeke moduak bizitza eredu batzuk sustatuko ditu, eta bizitza eredu batzuk hizkuntza ohitura batzuk aldatuko dituzte: ahuldu, indartu... Eta herritarrak administrazioarekin dauzkan beharrak ere aldatzen dira, eta administrazioaren jarduna ere bai. Ez ditugu hona ekarriko gai horrekin lotutako hausnarketak, baina UEMA muga horiek hausten dabil beste eragile batzuekin batera. Lan horretan jauzi kualitatibotzat har daiteke "Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea" jardunaldia, Lurralde Antolamendua hizkuntza irizpideetara hurbiltzeko saioa (Eranskinetan dago erreferentzia).

Bertaz, hizkuntza politikan eragiteke aukerak mugatuta daude, euskara zerbitzutik at eragiteke gaitasun txikia dugulako.



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

B. Bi marko juridiko-politikoaren mugak

UEMAren jardun eremu nagusia bi marko juridikotan bereizita dago: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa. Esparru horietan euskara ofiziala izan arren, ofizialtasun hori ez dago berdin garatuta/barneratuta, erakunde publikoek ez dute jarrera berbera... UEMAren egitasmoak (erabilera planekin lotutakoak nahiz bestelakoak) EAEn eta NFAn inplementatzekoak badira, bi errealitate horiek hartu behar ditu aintzat.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, UEMA eta Euskal Konfederazioa elkarlanean aritu ziren, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herriko etxeetan herriko etxeetan euskararen presentzia areagotzeko, eta 2014an ildo horri berrekingo diogu berriro. Nolanahi ere,, bistan da Ipar Euskal Herriko lan ildoak ezaugarri desberdinak izango dituela.

C. Elebitasun orekatu zorrotza

Elebitasun orekatu zorrotzaren eredia ari da nagusitzen. Ahozkoan, “Buenos días / Egun on” eta idatzikoan bi hizkuntzak agertzea, ezker-eskuin, orrialdearen alde banatan... Eredu hori nagusitzea lorpen handia izan liteke erdara(k) nagusi d(ir)ren eremuetan, baina eredu hori muga da euskara nagusi izan d(ir)en eremuetan. Norantz garamatza eredu horrek, gune erdaldunetan gero eta euskara gehiago egotera eta gune euskaldunetan gero eta erdara gehiago egotera? Aukerarik elebitasun orekatu zorrotzetik haragoko ezer egiteko? Borondaterik badago elebitasun orekatu zorrotzetik haragoko ezer egiteko? Zenbateko borondatea? Galdera hori planteatzea bera muga da gure jardunean, planteamendu horiek ez dutelako bat egiten UEMAko udal askok urte askoan euskarari eman dioten bide naturalarekin.

D. Borondatezko hizkuntza politika

Hizkuntza politika borondatezko atxikimenduan dago oinarrituta, ez du derrigortasunaren eremua landu edo ez dago derrigortasunaren eremua lantzeko aukerarik. Gerta liteke eta gertatzen da: euskara nahikorik ez dakiten langileak euskara gehiago ikasteari uko egiten, euskara dakiten langileak erdaraz lan egiten, euskara dakiten langileak erdaraz zerbitzua ematen, hizkuntza eskakizuna eskuratuta euskaraz beste ezer egiten ez duten langileak... Azpimarratu behar da ez dela inondik inora egoera orokorra, baina horren aurrean legeak/hizkuntza politikaren ereduak mugak jartzen dizkigu, eta aukerak eman ordez aukerak zapuztu egiten dizkigu.

E. Erdaldun kontratazioak

Euskara administrazioaren hizkuntza ofiziala den arren, administrazioak ez-euskaldunak kontratatzen jarraitzen du, eta erabaki hori, puntuala ez ezik, estrategikoa da. Erran nahi baita ez du bukaera datarik. Beraz, ahaleginaren parte handi bat langile erdaldunak euskalduntzera bideratzen da. Gainera, udalaren jardunaren parte garrantzitsu bat beste erakunde publikoekiko harremana da, eta beste aldean daudenak erdaldunak badira...

F. Udalen eskumena

Hizkuntza politikan udalek duten eskumena oso murrizta da, ia ezdeusa, sustapenera murriztua. Arautzea eskumenetik at dago. Udalek ez dute eskumenik ezta beren kabuz erabilera plana diseinatu eta inplementatzeko ere. Ez du araugintza mai-



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

Iako eskumenik; beraz, ezin du errealitate soziolinguistiko jakin bati egokitutako araurik egin, nahiz eta errealitate soziolinguistiko hori udal barrukoa izan.

Azken batean, ikaragarritzko desproporzioa dago erakunde publikoen eskumenen eta giza baliabideen artean. Tokiko erakundeek dituzte giza baliabide gehien eta eskumen gutxien.

G. Hizkuntza eskakizunak

Egiaztagirien bidez egiaztatzen da hizkuntzaren ezagutza. Zer ziurtatzen du ziurtagiriak? Ziurtatzen du udal arkitekto izan nahi duen batek euskaraz txostenak idazteko nahikoa gaitasun duela, baldin eta aitortzen badiogu arkitekto izateko hautaketa proba guztiak erdaraz egin ditzakeela? Zergatik ezin da txertatu derrigorrez euskarazko proba bat hautaketa prozesuan? Udalak lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea erabaki izana arkitekto izateko hautagai horrek azterketa euskaraz ez egiteko eskubidearen mende dago. Beraz, euskara lan hizkuntza duen udal batek euskaraz lan egiteko zailtasunak/ezintasunak dituen arkitekto bat kontratatu dezake.

H. Estatuaren esku-hartzea

Estatuak lupa du hizkuntza politikaren esparruan ari garen eragileen gainean, eta errekerimendu, errekurso, auziperatze eta abarren bidez jarduna oztopatu, pozoitu eta indargabetu egiten du. Estatuaren esku-hartzea ez da atzo goizeko kontua; aspalditik dator: 80ko hamarkada amaierako euskararen ordenantzak, EAEko Euskararen Legearen 8.3 puntua, kontratazio arloko errekerimenduak...

Askotan aipatzen dugun adibidea EAEko Euskararen Legeari buruzkoa da:

[8. 3. puntua] Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hezkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute.

Auzitegi Konstituzionalak baliogabetu egin zuen puntu hau.

Kontu honekin gehiegi luzatu gabe, Pako Aristiren aipu hau ekarri nahiko nuke gogora:

“Estatuek ez dute baimentzen hegemonikoa ez den beste hizkuntza baten hedapen larriegirik, traba egiten dite.”

2. Erabilera planekin zer egin dugun

Gaur egun, UEMAn 70 udal daude, eta beste birekin lanean hasita gaude, nahiz eta hemendik hilabete batera sartuko diren (Berastegi eta Markina). Lau lagun arduratzen gara udal horien barne erabileraz. Langile bakoitzak, beraz, batez beste 18-19 udal ditu bere ardurapean.



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

Beraz, biziki eskertzen dugu udal hautetsiek edo udal langileek ematen diguten laguntza oro; batez ere, herrian edo eskualdean lanean dabiltzan euskara zerbitzuena.

Aurreko urteetako ibilbidea

UEMA 90eko hamarkadatik ari da udalen erabilera planak egiten. Jardun horretatik hainbat ondorio atera ditugu (gehienak EA Erekin lotuta daude):

- Plangintzaldiek ez dute bat egiten udalaren funtzionamenduari (legealdiekin).
- Askotan, erabilera planak egiteak gehiago erantzun dio legez derrigortuta egoteari udalen benetako premiei baino.
- Askotan, erabilera plana diseinatzea eta onartzea helburu bihurtu da tresna baino gehiago.
- Hainbat metodologia, egituraketa, aplikazio informatiko... erabili ditugu, gureak zein beste erakunde batzuenak, eta plangintzaldiak joan eta plangintzaldiak etorri ez da metodologia bat nagusitu, ezta egituraketa edo aplikazio informatiko bat ere (Aebemet, Irati...).
- Zerbait nagusitu bada, eskema hau da: irizpideak, helburuak, ekintzak, adierazleak.
- Jarraipena da gakoa, eta jarraipenerako ere ez da formula bakar bat erabili. Toki batean eraginkorra dena ez da eraginkorra beste batean (Euskara batzordeak, jarraipen batzordeak, lan taldeak...).
- Zuhaitzek basoa ikusten uzten ez digutelako sentsazioa: Non gaude? Asko aurreratu dugu? Ondo goaz? Zenbat falta zaigu helmugara iristeko? Aurreko erabilera planean zehaztutako helburua beteta dago? Zein da ibilbidearen helmuga? Ikuspegi estrategikoa dugu edo noraeza estrategikoan murgilduta gaude?

2013an galdera horiekin lotutako kezka mahaigaineratu, hausnartu, eta konpontzen saiatzen hasteko ahalegin praktikoa egin genuen: 68 plan egin ditugu, eta beste lau egiteko lanean murgilduta gabiltza. Lan horren oinarriak hauek izan dira:


- Planetan txertatutako hizkuntza irizpideak Jaurlaritzarekin adostuak. 1995ean adostutakoak aldatu egin dituzte, Euskararen Legearen interpretazio murriztagoa eginda.
- Udalaren hizkuntzaren erabilera lau alorretan banatu dugu. Gogoan hartu behar da Irati aplikazio informatikoak 12 esparru zehazten dituela. Hauek dira alorrak:
 - Udalaren irudi korporatiboa
 - Barne harremanak
 - Kanpo harremanak
- Lau alorretan oinarritutako galdetegia prestatu
- Udal langile eta hautetsiekin galdetegia bete: datu aitortuak
- Datuetatik, hainbat txosten atera ditugu:
 - o Datuekin diagnostikoa osatu. Udal handietan sail/departamentu bakoitzak diagnostiko bat izan du. Udal txikiek diagnostiko bakarra dute. Diagnostikoan alorrez alor UEMAren hizkuntza irizpideak zenbateraino

Erabilera planak: mugak hausten

bete diren zehaztu, udal bakoitzari nota bat emateraino (0-10). Nota horren arabera, udalak mailakatu egin ditugu. Honako maila hauek zehaztu ditugu:

- Tontorrean: oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz osotasunean funtzionatzen duten udalak egongo dira maila honetan.
- Gorabidean: nagusiki euskaraz eta ele bietan (euskarari lehentasuna emanda) funtzionatzen duten udalak dira maila honetan kokatuko ditugunak.
- Magalean: nagusiki, ele bietan modu orekatuan funtzionatu arren, tartean gaztelania hutsean ere funtzionatzen duten udalak.
- Abian: ele bietan funtzionatzera bidean, oraindik urrats handia egiteko duten udalak izango dira. Udalotan gaztelaniak presentzia nabarmena du.

Grafiko honetan ikus dezakezue maila bakoitzean zenbat udal dauden



Grafiko honetan ikus dezakezue maila bakoitzean zenbat udal dauden:

- Diagnostikoan oinarrituta, erabilera plana egin dugu, helburu orokorrekin. Osoko Bilkurak onartu beharrekoa agiria da, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren oniritzia behar du. Jarraipen Batzordea eratzeari ere onartzen du Osoko Bilkurak.
- Urtez urteko kudeaketa planak, ekintza, arduradun eta epe zehatzekin.



Erabilera planak: mugak hausten

3. Etorkizunerako erronkak

Etorkizunera begira, argi dago 1. puntuaren nabarmendutako mugak higitzen, desagerrarazten edo gainditzen ematen den pauso bakoitza euskararen normalizazioaren aldeko pausoa izango da, eta hori bezain argi daukagu hori onuragarria izango dela udalen euskararen erabilera hobera egiteko.

Maila teknikoagoan, labur-labur, honako korapilo hauek askatzen hasi beharra dagoela ikusten dugu. Neurri handi batean, ñabardurak ñabardura, HAKOBAn erabilera planez hausnartzeko sortutako taldean agertu diren kontuak dira. Hona hemen:

- Metodologia are gehiago arindu behar da. Ezer ezetik plana onartzen den arteko denborak eta dedikazioak ezin du izan plana inplementatzeko behar dugun denbora eta dedikazioa baino gehiago.
- Lan egiteko modu homogeneorik ez dugu. Galdera asko daude erantzun gabe: zein dira helburuak?, zein adierazleak?, zer neurtu behar da eta nola?... Hasteko, guztiok gauza berari berdindutakoak asko lagunduko liguke.
- Formazio espezifikoen beharra: erabakien kudeaketa, dedikazioak zehaztea, kalitatean oinarritutako metodologiak, lehenetsiak markatzea... Utziko al diogu ebanjelizatzeari noizbait?
- Planen erredakzioan interpretaziorako tarte txiki beharko da. Helburuek gauza jakin bat esan behar dute, lausotasunik gabeak.
- Datuen tratamendu informatikoa lortu behar da:
 - Datuak sartzeko: une jakin bateko argazkia ateratzeko
 - Jarraipena egiteko: bilakaera ikusteko
 - Gaur eta hemen, gakoa jarraipenean dago

Erronkak erronka, hainbat eragileren ahotatik entzundakoagatik ematen du erabilera planak nolabaiteko krisian edo kolapsoan daudela. Gauza asko jartzen dira zalantzan, galdera ugari sortzen zaigu... Batzuetan ematen du galdera baten erantzunean asmatzen hasten garenean galdera gehiago sortzen zaigula, enbor bateko adarrak eta adar bakoitzeko adartxoak eta adartxo bakoitzeko hostoak bailiran.

Horrek ezkortasuna elikatu dezake, eta, berez, elikatu egiten du, noraeza, ezintasuna eta ezkortasuna neurritz kanpo handitzeraino. Euskara teknikariorik edo hizkuntza normalizatzaileok ezkortasuna eta gauzak aurrera eramateko ezintasuna bide-lagin izaten dugu askotan.

Horregatik, ezkortasunaren zurrumbilo suntsitzailean ez erortzeko, Albert Einsteinen aipu bat ekarri nahi dut gogora:

“Krisia pertsoneri eta herriei gerta dakiekeen gauzarik ederrena da. Krisirik gabe ez dago erronkarik, eta erronkarik gabe bizitza aspergarria da, agonia motel etengabea. Krisiaz mintzatzea krisia bera eragitea da. Isiltzea, berriz, konformismoa ereitea. Benetan mehatxatzen gaituen krisi bakarra egoera iraultzeko dugun kemen falta da”.

Eskerrik asko.

Imanol Haro Solaberrieta (imanol.udalak@uema.org), Miren Etxenike Urretabizkaia (miren.udalak@uema.org), Iratxe Ibarra Foruria (iratxe.udalak@uema.org), Aizbea Renteria Laiuno (aizbea.udalak@uema.org)

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean udalen erabilera planez arduratzen den lan taldeko kideak



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Erabilera planak: mugak hausten

Eranskina

Erreferentzia asko emateak duen arriskuaz jabetuta, hiru erreferentzia baino ez ditugu aukeratu.

1. Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. jardunaldia

Jardunaldiaren materiala webgune honetan dago: <http://www.ueu.org/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/628/Lurraldea+eta+Hizkuntza.+Hizkuntza+eta+Lurraldea.+I.+jardunaldiak>

2. UEMA 1991-2000. BAT soziolinguistika aldizkariaren 34. zenbakia (2000ko maiatza)

Dossier berezia UEMArri buruz.

3. “Maldetan koskak gaintitzen”. Berrian argitaratutako artikulua (2014-03-18)

http://paperekoa.berria.info/harian/2014-03-18/020/001/maldetan_koskak_gaintitzen.htm